

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Garbiñe Jauregi Abarrategi*

*Errenteria,  
Gipuzkoa  
(1932-2021)*

Aurkibidea



## Biografia

Aretxabaletan jaio zen Garbiñe. Aita, Pedro Jauregi, Azatzan jaioa zen eta Aretxabaletako alkatea izan zen gerraurrean EAJren aldetik. Ama, Mercedes Abarrategi, Garagarzan jaioa zen. 36ko gerra hastean, aitik Bilbora alde egin behar izan zuen eta senide guztiak bertara joan ziren bizitzera. Gero Durangora aldatu ziren eta, hango bonbardaketaren ondoren Aretxabaletara itzuli zen ama seme-alabekin. Gero aita preso hartu eta langile batailoietan ibili ondoren, Ondarretako kartzelan pasa zituen lau urte preso. Garbiñek bere haurtzaroa senideen etxeetan igaro zuen, osaba apaizarekin Garagartzan lehenengo, eta gero Aztirian senide batzuen baserrian. Hamahiru



urterekin Erreterria-Oreterara etorri zen familia osoa. Aitak beste akziodun batzuekin batera Lanona izeneko lantegia jarri zuen martxan Erreterria-Oreteran eta hango zuzendari-lanak egin zituen. Hamasei urtera arte ikasten aritu ondoren, aitaren bulegoan jarri zen lanean Garbiñe. Joaquin Bengoetxearekin ezkondu zen hogeita hiru urterekin. Garraiolaria zen senarra eta hogeita hamabi urterekin Garbiñe alargun gelditu zelarik, senarrak hasitako bideari eutsi zion. Ordurako Erreterria-Oreterako autobus urbanoa martxan jartzeko baimena eskatua zuten udaletxean. Garbiñek alargundu ondoren baimena eskuratu zuenean, autobus zerbitzua jarri zuen martxan. Gerora, bere enpresa propioa, Bengoetxea Autobusak, eraiki zuen eta Garbiñek eraman izan du bertako ardura nagusia, baita enpresako kontabilitatea ere. Maria de Lezo kalean bizi izan da

# Zintak

## ERR-036

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-05-26
- **Iraupena:** 133 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Familiako ia denak Bilbora gerra garaian

- **Erref:** ERR-036/002
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

#### Laburpena:

Gerra hasi zenean, Aretxabaletan bizi ziren. Lehenengo, aita joan zen Bilbora; eta geroago, ama eta 3 seme-alaba; 4. semeak 2 urte zituen orduan eta neskamearen baserrian utzi zuten han zain zezaten. Aretxabaletatik Elorriora joan ziren mendiz.

### 2. Bilbo eta Durango pasa ostean, Garagartzara buelta

- **Erref:** ERR-036/003
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

#### Laburpena:

Gerra garaian Bilbon egon zirenean, kobazulo batean babesten ziren hegazkinen bonbatatik. Bilbotik Durangora joan ziren: han etxearen zelaiko "kobazulo" txiki batean babestu ziren Durangoko bonbardaketa izan zenean. Handik Garagartzara itzuli ziren, eta senideak familiartekoen etxeen artean sakabanatu ziren; beraien etxea hustuta zegoen.

### 3. Gerra ostean batetik bestera ibili zen Erreterian finkatu arte

- **Erref:** ERR-036/005
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Durangotik Garagartzara bueltatu zirenean, aita "Batallón de Trabajadoresen" egon zen; gerora, Ondarretako kartzelara eramán zuten eta 5 urte eman zituen han. Erreñteriará bizitzera joan ziren arte, Garbiñe ez zen bizi izan amarekin, osabarekin baizik. Osaba osasunez oso ondo ez zebilenez, Madrila joan zen hango ospitale batera; orduan Garagartzara joan zen Garbiñe, baina ez zuen denbora asko eman han. Handik Aztiriara joan zen lehengusu batzuen etxera eta 13 urte zituela etorri zen Erreñteriará.

**4. Aztirian eta Erreñterian ikasitakoa**

- **Erref:** ERR-036/007
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:20:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

**Laburpena:**

Erreñteriará joan zenerako, 13 urte zituen. Aztiriako eskolan ikasi zuen lehenago Garbiñek, euskaraz; Erreñteriará iritsitakoan, Aierben eta Miren Gezalaren eta Isabel Albisuren eskolan ikasi zuen 16 urte bete zituen arte. Han zer ikasten zuten aipatzen du.

**5. Aitareñ lanagatik familia osoa Erreñteriará**

- **Erref:** ERR-036/008
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:20:33. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

**Laburpena:**

Familia osoa Erreñteriará etorri zen aita kartzelatik atera ostean, Lanona enpresako zuzendari-lanetan hasi baitzen. Lanona fabrian plantxak eta piezak egiten zituzten, besteak beste.

**6. Erreñteriará etorritakoan nabaritutako aldea**

- **Erref:** ERR-036/009
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

Erreñteriará etorri zirenerako, 5 anai-arreba ziren. Garbiñerentzat aldaketa handia izan zen Aztiriatik Erreñteriará etortzea: hasiera batean, ia ez zekien

erdaraz eta lagun gehienek ez zekiten euskaraz. Garbiñeren euskara, gainera, Arrasateko hizkera zen eta Errenteriako hizkeraren aldean oso desberdina zen; horri buruzko anekdota kontatzen du.

## 7. Aztiriako bizimodu zoriontsua

- **Erref:** ERR-036/011
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:27:39. **Bukatu:** 00:30:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Errenterian bizi zen arren, ahal zuen guztietan Aztiriara joaten zen Garbiñe. Aztirian oso pozik bizi izan zen. Han ikasten ibili zenean, apaiza zuten maisu. Baserrietan bizi ziren inguru hartan, baina izaten zuten jolasteko denbora. Garbiñe beti kantari aritzen omen zen.

## 8. Mendian eta baserrian fruta biltzen

- **Erref:** ERR-036/012
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:30:11. **Bukatu:** 00:32:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

### Laburpena:

Aztiria mendiz inguratuta zegoen. Umetan, askotan ibiltzen ziren mendian fruta biltzera; behin liztor batek kosk egin zionekoa kontatzen du. Igandeetan, Bezperatara joaten ziren elizara; handik ateratzen zirenean, etxean fruta nahikoa eduki arren, Gabiria aldeko baserri batera joaten ziren fruta lapurtzera.

## 9. Arkumea maitea zuten

- **Erref:** ERR-036/013
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:32:41. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena:**

Baserrietan animaliak izaten zituzten Aztirian. Beraien baserrian behiak eta txerria izaten zituzten; baina auzokoek urtero arkume txiki bat oparitzen zieten. Arkume hura hiltzen zutenean, atsekabe handia izaten zuten; izan ere, txakurra bezalakoa zen, alde guztietara laguntzen zituen. Arkumearekin izaten zituzten abenturak kontatzen ditu.

**10. Erreteriarira iritsi zeneko paisaia**

- **Erref:** ERR-036/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:34:57. **Bukatu:** 00:36:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena:**

Aztiriatik Erreteriarira etorri zenean, alde handia nabaritu zuen. Garai hartako Erreteriar oraingoa baino txikiagoa zen. Lehen zelaia zeuden gaur etxeak dauden lekuan, eta zelai haiei buruz hitz egiten du.

**11. Aita abertzalea**

- **Erref:** ERR-036/016
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:37:14. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

Garbiñeren aita gerra aurrean alkate izan zen Aretxabaletan PNVren aldetik. Gerra ostean ere abertzale izaten jarraitu zuen, baina ez zuen jendaurrean agertzen.

**12. Erreteriaran egindako lehenengo lagunak**

- **Erref:** ERR-036/017
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:38:31. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

<p>Erreteriarira iritsi zenerako, bertako neska bat ezagutzen zuen, Aztiriako apaizaren iloba baitzen. Lehenengo lagunaren izenak aipatzen ditu. Josten eta bordatzen ikasten aritzen ziren. Han bordatu zituen bere ezkontzako arreorako maindireak.</p>

### 13. Lagunekin aisialdian

- **Erref:** ERR-036/018
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

#### Laburpena:

Lagunekin kalera irtetea, kanean gora eta behera paseatzeko ohitura izaten zuten. Neskak ez ziren inoiz sartzen tabernatan. Gaueko 10etarako etxean egon behar izaten zuen, baita mutil-lagunarekin ateratzen zenean ere.

### 14. Mutil-lagunarekin hasi zenekoa

- **Erref:** ERR-036/019
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:44:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

#### Laburpena:

<p>Udan Erreterian ostegunetan eta igandetan gramola izaten zen. 16-17 urte zituela hasi zen Garbi&ntilde;e mutil-lagunarekin irteten kuadrillan. Geroago, bi bikote ibiltzen ziren elkarrekin.</p>

### 15. Lagunen artean egiten zituzten planak

- **Erref:** ERR-036/021
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:48:01. **Bukatu:** 00:51:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

#### Laburpena:

<p>Lagunak kuadrillan elkartzen zirenean, gertuko mendietara edo itsasaldera joaten ziren. Ez zuten ohiturarik Donostiara joateko. Erreterian, Alamedaren atzeko partean ez ziren ibiltzen, han beste giro bat baitzegoen: liberalagoa, aurreratuagoa.</p>

### 16. Euskaraz etxean bakarrik

- **Erref:** ERR-036/022
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:51:06. **Bukatu:** 00:51:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera



**Laburpena:**

Lagunartean dena erdaraz egiten zuten. Klean dena erdara entzuten zen. Euskara etxerako uzten zen.

**17. Apaizak absoluzioa eman nahi izan ez zionekoa**

- **Erref:** ERR-036/023
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:51:56. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Gazteak zirenean, Mariaren Alabak kongregazioa zegoen eta han arau batzuk zeuzkaten. Garbiñe apaizarengana konfesatzera joan zen batean, apaizak absoluzioa eman nahi izan ez zionekoa kontatzen du. Bekatua: zinean ikusi behar ez zuen pelikula ikustea.

**18. Arropa estreinatzeko egunak eta galtzak janzteko pausoa**

- **Erref:** ERR-036/028
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:02:37. **Bukatu:** 01:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Arropa berria egun berezietan estreinatzen zuten: Madalenetan, Santu Guztien Egunean... Lehen emakumeak ez ziren depilatzen. Beti gonak erabiltzen zituzten neskek. Garbiñe mendira joateko jantzi zituen lehenengo aldiz galtzak.</p>

**19. Ezkontzako oroitzapenak**

- **Erref:** ERR-036/030
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

<p>23 urte zituela, Joaquin Bengoetxearekin ezkondu zen Garbiñe. Erreterriako parrokiara ezkondu ziren eta Panier Fleurin bazkaldu zuten. Familiakoak eta lagun gertukoak elkartu ziren ezkontzan. Ezkontzako soinekoa Pasaian egin zion jostun batek.</p>

## 20. Senarrarekin izandako bizimodua

- **Erref:** ERR-036/033
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:11:12. **Bukatu:** 01:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Senarrarekin beti erdaraz egiten zuen; umeak jaiotzen hasi zirenean, euskaraz hasi ziren egiten. Senarra Erreterriakoa zen. Ezkondu eta senarraren gurasoek zeukaten etxean jarri ziren bizitzen. Senarrak kamioiarekin egiten zuen lan, paketeak banatzen; geroago eskolako autobus-zerbitzua ematen hasi zen.</p>

## 21. Erreterriako hiri-autobusa martxan jartzeko lanak

- **Erref:** ERR-036/034
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:14:59. **Bukatu:** 01:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

### Laburpena:

<p>&nbsp;Senarra hil zitzaionean, Garbi&ntilde;ek jarri zuen martxan hiri-autobusa Erreterrian. Hasieran autobus bat erosi zuten, eta harekin eta lehendik zuten autobus txikiarekin konpontzen ziren; pixkanaka autobus gehiago erosten joan ziren.</p>

## 22. Hasiera gogorra hiri-autobusa jartzean

- **Erref:** ERR-036/035
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 01:16:37. **Bukatu:** 01:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

### Laburpena:

Erreterriako hiri-autobusa jarri zueneko hasiera oso gogorra izan zen: langileek ez zuten asko irauten. Ibilbidea, ordutegiak, geltokiak... dena zegoen egiteko eta Garbiñeri tokatu zitzaion hori dena egitea. Bide batzuk zuloz beteta zeuden eta hura konpondu arte denbora pasa zen. Hasieran jendeak ez

zuen autobusa hartzeko ohitura. Lehen autobusak Pegaso enpresan erosten zituzten.

### 23. Hiri-autobusa aurrera ateratzeko trabak

- **Erref:** ERR-036/036
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:21:13. **Bukatu:** 01:24:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

#### Laburpena:

sAutobusen zerbitzua martxan jartzen hasi zenerako, Garbiñek 6 seme-alaba zituen eta ume-zaintzaile bat hartu zuen haiekin lagun ziezaion. Udalarekin harremana izan zuen Garbiñek lanagatik, baina garai batzuetan traba asko jarri zizkieten. Udaletxeko langileei buruz hitz egiten du. Autobus-geltokiak egitea Garbiñeren kontura joan zen.

### 24. Hiri-autobusak uzteko erabakia

- **Erref:** ERR-036/037
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:24:42. **Bukatu:** 01:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

#### Laburpena:

Autobusen ibilbidea hedatzen joan zen pixkanaka. Udalak trabak jartzen zizkion Garbiñeri eta azkenean uztea erabaki zuen.

### 25. Autobusekin emandako zerbitzuak

- **Erref:** ERR-036/038
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:26:47. **Bukatu:** 01:29:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

#### Laburpena:

<p>Garbiñek Errenteriako hiri-autobusaren zerbitzuaren ardura utzi zuenean, beste zerbitzu bat ematen hasi zen autobusekin: eskolatan, txangoetan... Semeak ere etxeko negozioan hasi ziren lanean orduan.</p>

## 26. Autobusen enpresa aurrera ateratzeko jasotako laguntza

- **Erref:** ERR-036/039
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:29:17. **Bukatu:** 01:30:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

### Laburpena:

<p>Garbi&ntilde;eren hiru ume gazteenek ikastolan ikasi zuten. Autobusen munduan egin izan du lan Garbi&ntilde;ek; koinatuak eta senarraren lagunak asko lagundu izan diote. Semeak hazi zirenean, lasaiago ibili zen Garbi&ntilde;e, lagundu egiten baitzioten.</p>

## 27. Giro mugitua Erreenterian

- **Erref:** ERR-036/046
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:46:39. **Bukatu:** 01:50:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Lanbideak » Polizia

### Laburpena:

Erreenterian, mugimendu politiko asko egon izan da, iskanbilak. Garbiñek guardia zibilekin izandako gorabeherak kontatzen ditu. Zenbaitetan, autobusak puskatu izan dizkiote Erreenteriako iskanbiletan.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2025-07-10*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com